

ATARI BIBLIOGRAFIKOA (EHS)



Hizkuntzen Historia Soziala (HHS) azken hamarkadetan gero eta arreta handiagoa irabazten ari da ikertzaileen munduan ez ezik herritarren artean ere, ezagutza historiko horretatik gaur eguneko egoera ulertu eta etorkizuneko plangintzak hobeki ohartuta egin daitezkeelakoan, betiere jakite-eremu berri horretarako bideak urratzen diren bitartean.

Azken mende erdian Soziolinguistikak bereziki lagundu du Hizkuntzen Historia Soziala, hurbileko zenbait jakite-diziplinaren ekarpenak ere gogoan hartuta: Historia orokorra, Soziologia, Hizkuntzalaritza, Zuzenbidea, etab.

Horretaz guztiaz jabetuta, Euskaltzaindiak bere Jagon Sailean bi ekimen ditu abiarazirik: ikaslanari dagokion “Etxeberri Egitasmoa” (2007, [ikus hemen](#)), eta Argitalpen Batzordearen ardurapean, hedapenari dagokion edizioena (2009).

Azken xede honekin, *Argibide bibliografikoak* deritzan lana argitara eman du Akademiak, eta orain modu erabilgarriago batean jartzen du Sarean, nornahirentzat eta ikerkuntzarako laguntza egokia izango delakoan.

Zeregin bibliografiko hau hobetu eta zabaltze aldera, aldian aldiko osaketak egiten joango gara, eta ikertzaile eta herritarrengandik laguntza osagarriak espero ditugu.

ARDURADUNAK

J. Intxausti (zuz.)

I. Etxebeste, K. Segurola

(Euskaltzaindiko teknikariak)

Posta elektronikoa
bibliografiaehs@euskaltzaindia.net